

## **ZALLA SUSTATU**

### **Zallan enplegua sustatzeko enpresa eta saltokientzako diru-laguntzen Zalla Sustatu udal-programa arautzen duten oinarriak.**

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk, 2017ko uztailaren 28an eginiko Administrazio Kontseiluaren bilkuran, onetsi egin zituen Zallan enplegua sustatzeko enpresa eta saltokientzako diru-laguntzen Zalla Sustatu programarako 2017ko deialdia arautzen duten oinarriak.

Oinarri hauek diru-laguntza horien 2017ko deialdiaren esparru orokorra arautzen dute:

## **OINARRIAK**

### **1.- Helburua**

Oinarri hauen helburu da itzuli beharrik gabeko laguntzak ematea, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten langabetuak (2. atala) kontratatzeko, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean eta behin betiko zein aldi baterako lan-kontratuen bitartez.

Laguntza hauen xede izango dira 2017ko urtarrilaren 1etik gehienez ere 2017ko abenduaren 31ra bitartean egindako kontratuak.

### **2.- Kontratu beharreko pertsonen eta ekintzaileen betekizunak**

a) Kontratatuko diren pertsonak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Zallan erroldatuta egotea 2014ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, etenik gabe, laguntza-eskaera aurkezteko unera arte, edo eskatzailea bere bizitzaren % 75ean eta eskaera aurkezteko unean erroldatuta egotea. Zallan erroldatuta egon beharko da laguntzaren kontratuak indarrean iraun artean, eta egiaztatu beharko da kontratazio-data baino lehenago hilabetez langabezian egon dela. Gainera, langabe gisa inskribatuta egon beharko da Lanbide enplegu-zerbitzu publikoan.
- Bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasun harremanik ez izatea titularrarekin edo bazkide nagusiekin, ezta enpresa edo erakunde onuradunaren gobernu-organoetako kideekin ere; orobat, ez da aipatutakoen elkarbizitza-unitate bereko kide izango. Horretarako, bazkide nagusizat jotzen da kapital sozialaren % 10 baino gehiago duen sozio akzioduna edo parte-hartzailea, gizarte-borondatearen osaeran egiazko aginte-lekua betetzen duena.

b) Beren kontura kontratatuko (autoenplegua) ekintzaileek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

— Zallan erroldatuta egotea 2014ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, etenik gabe, laguntza-eskaera aurkezteko unera arte, edo eskatzailea bere bizitzaren % 75ean eta eskaera aurkezteko unean erroldatuta egotea. Zallan erroldatuta egon beharko da laguntza ematea dakarren jarduerak altan irauten duen aldi osoan, eta egiaztatu beharko da Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman den eguna baino lehenago hilabetez langabezian egon dela. Gainera, langabe gisa inskribatuta egon beharko da Lanbide enplegu-zerbitzu publikoan.

— Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafe bereko jarduerarik egin ez izana jardueran alta eman aurreko urtean. Baldintza hori eskatzaileari zein bigarren mailarainoko odolkidetasuna duten edo bizikidetzaren unitate bera osatzen duten pertsonen dagokie, belaunaldi-ordezkapena gertatu denean salbu.

### **3.- Onuradunak**

**3.1.** Deialdi honetako kontratazio-laguntzen onuradun izateko aukera izango dute enpresa, saltoki eta profesional guztiek, euren forma juridikoa edozein izanda ere. Erakunde onuradunek, laguntzak eskuratu ahal izateko, baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- 2 a) atalean ezarritako baldintzak betetzen dituzten langabeak kontratatzea eta horiei Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean alta ematea.
- Enpresak edo erakundeak administrazio edo erakunde publikoen menpekoak ez izatea edo horiekin sozietate gisa loturarik ez edukitzea % 40 baino gehiagoko portzentajearen.

**3.2.** Norberaren kontura kontratatzeko laguntzen onuratarako aukera izango du edozein ekimenek, enpresaren eraketak hartzen duen forma juridikoa edozein izan ere, betiere bere helbide soziala Zallan badago eta laguntza eskatzen duten kideek 2 b) atalean ezarritako baldintzak betetzen badituzten.

### **4.- Baztertzak eta bateraezintasunak**

Programatik kanpo gelditzen dira honako hauek:

- a) Aurreko 24 hilabeteetan, lan-kontratu finakoaren bidez, enpresa edo enpresa talde berean edota enplegatzaileak ondorengotzan hartutako enpresetan zerbitzuak eman dituzten langileak, Langileen Estatutuaren 44. artikuluari jarraikiz.
- b) Kontratu egin aurreko hiru hilabeteetan bi alderdiak ados jarrita kontratu mugagabeko lan-harremana bertan behera utzi duten langileak.
- c) Aldi baterako lanetarako enpresek eginiko kontratazioak, langileak jartzeko zerbitzuak emango dituzten enpresa erabiltzaileen esku.
- d) Arau-hauste oso larriak egin izanagatik, enplegu-programen onuradun izatetik kanpo utzi diren enpresek eginiko kontratazioak.
- e) Laguntza eskatu aurreko 12 hilabeteetan enpresek egindako kontratazioak, enpresa horiek kontratuak amaiarazi badituzte kaleratze kolektiboen bidez, diziplina-zergatiak edo zergati objektiboak

tarteko, eta kaleratzeak bidegabetzat jo direnean epaileen epai irmoaren edo laudo arbitralaren bidez, betiere kontratazioak egiten diren lan-leku berberari dagozkionean.

f) Lan-kontratuak, betiere kontratu horiengatik enpresa berberak dagoeneko laguntzaren gehieneko zenbatekoa jaso badu, hala deialdi honetan nola aurreko deialdietan.

g) Enpresek edo enpresa talde berbera osatzen dutenek eginiko kontratuak, betiere deialdi honetan edo aurrekoetan pertsonak kontratatzekeo laguntzak eskatuta diru-laguntza justifikatzeko ezarritako araudia bete ez badute edo berau itzultzeko prozeduran badaude.

h) Udal-laguntzak jasotzen dituzten kontratazioak edo enpresa-sustatzaileak, kontratazioa egiten duen enpresa mota edo sortu nahi den enpresa mota dela-eta egiten diren hitzarmen edo akordio espezifikoak oinarri hartuta.

### **5.- Laguntzaren zenbatekoa**

A) Hauek izango dira lanaldi osoko eta urtebete edo gehiagoko kontratuak egitearen truke jasoko dituzten diru-laguntzen zenbatekoak:

- 1.** Langabetuak, oro har: **gehienez 3.000 euro.**
- 2.** 45 urtetik gorako langabetuak, gutxienez urtebete langabezian badaramate, eta ohiko kontratua duten 30 urtetik beherako gazteak (praktika- eta prestakuntza-kontratuak kanpo): **gehienez 3.500 euro.**
- 3.** Unibertsitate-titulua edo lanbide-heziketako goi-mailako gradua duten 30 urtetik beherako langabetuak, beren titulazioarekin bat datozen ohiko kontratudun lanpostuetarako (praktika-kontratuak kanpo): **gehienez 4.000 euro.**

Kasu horietan guztietan, laguntzaren zenbatekoa % 20 areagotuko da kontratazio mugagabea egiten bada; hala bada, sortutako enpleguari bere horretan eutsi beharko zaio gutxienez bi urtez.

Horrez gain, laguntzaren zenbatekoa % 20 areagotuko da enpresa kontratatzaileak helbide soziala edo lan-zentro baimenduren bat badu Zallan.

Aipatutako kasu guztietan, kontratuaren iraupena urtebete baino gutxiagokoa bada (sei hilabete edo gehiagokoa izan behar du) eta/edo kontratazioa partziala bada (% 50 edo gehiagokoa izan behar du), laguntza dagokion proportzioan murriztuko da.

Enpresa beraren eta langilearen artean kontratu bat baino gehiago egitekotan, sei hilabeteko gutxieneko epea pilatu ahal izango da lehenengo kontratua egiten denetik aurrera, urtebeteko epean.

Lanaldi partzialeko lanpostuetako diru-laguntza kalkulatzeko, diruz lagunduko den zenbatekoari aplikatu egingo zaio ezarritako ohiko lanaldiaren aldean hartzen duen portzentajea, betiere, gutxienez lanaldiaren % 50era iristen bada.

Laguntzak indarrean dauden epean pertsona berberarekin hainbat kontratu egin arren, ez da jasoko inola ere 5.760,00 €-tik gorako laguntzarik.

Adierazitako laguntzak ezin dira pilatu. Sortzen den lanpostu bakoitzeko gorago adierazi den zenbatekoa emango da, eta zenbateko hori ez da itzuli behar izango.

Enpresak berak gehienez ere 6 kontraturengatik jaso ahal izango ditu diru-laguntzak.

**B)** Horrez gain, langabezian dagoen edozein pertsonak **bere kontura sortutako lanpostu berri bakoitzeko laguntza bat** ezartzen da, baldin eta 2 b) atalean ezarritako baldintza betetzen badu.

Laguntzaren zenbatekoa **autonomoen kuoten zenbateko osoa ordaintzeko adinakoa izango da lehen hamabi hilabeteetan**. Zenbateko hori kalkulatzeko, Gizarte Segurantzak legez, eta kasu bakoitzeko baldintzen arabera, eskaintzen dituen pizgarriak jaso ondoren dagokiona hartuko da aintzat, betiere ere gutxieneko kuota erabiliz erreferentzia gisa.

Diru-laguntzaren aldia kalkulatzeko, Gizarte Segurantzako alta hartuko da erreferentzia gisa.

## **6.- Beste laguntza batzuekiko aldiberekotasuna**

Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publikoek edo pribatuek emandako eta kontzeptu berberak diruz laguntzeko balio duten bestelako diru-laguntzekin.

Programa honetan ezarritako diru-laguntzek bete egingo dute Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakiko Araudian (EE) ezarritakoa. Araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2006ko abenduaren 28an eta Minimis araupeko laguntzei buruzko EB Ituneko 87. eta 88. artikuluen aplikazioari dagokio. Halaber, diru-laguntzek bete egingo dituzte araudi horretan gerora egiten diren aldaketak. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa jakin bati emandako Minimis laguntzek guztira ez dute gaindituko 200.000 euroko zenbatekoa 3 zerga-ekitalditako edozein epetan. Muga hori ezarriko da, Minimis laguntza mota edo lortu nahi den helburua gorabehera. Muga hori gainditzen bada, programa honen arabera emandako laguntza murriztuko da; zehazki, gehiegizko kopurua kenduko da.

Ordaindu beharreko zenbatekoak, kontratazio bererako beste laguntza batzuk gehituta, ez du inola ere gaindituko soldata gordinaren zenbatekoa. Hala gertatuko balitz, Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo litzateke, soldata gordinaren zenbatekoa gainditu duen gehiegizko kantitatearen arabera.

## **7.- Aurrekontu-erabilgarritasuna, eskaera egiteko epea eta lehenespena**

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak "enpresa-jarduerak sustatzeko laguntzak" izeneko partidaren kargura finantzatuko dira. Partida hori sozietatearen ekitaldi honetarako aurrekontuan sartuta dago.

Partida hori sozietateko administrazio-kontseiluak onartutako beste laguntza batzuekin partekatuta egongo da, baldin eta laguntza horiek xede bererako badira.

Partida honen zenbateko osoa aldatu ahal izango da, EBZk hala erabakitzen badu.

Eskaerak aurkezteko epea Enkarterri Berri Zerbitzuak SLko administrazio-kontseiluak laguntza hau onartu ondoren hasiko da, zehazki, deialdi hau sozietatearen webgunean argitaratu eta hurrengo egunean.

Laguntza-eskaerak ebazteko, eskaerak erregistratu zireneko hurrenkera zorrotza hartuko da kontuan, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osorik badago, eta aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituaren mugaraino.

### **8.- Eskaeren aurkezpena**

Eskaerak eta nahitaezko dokumentazioa Zallako Udalaren HAZn (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua) aurkeztu behar dira (Kosme Bibanko 2, Zalla), edo ZALLALAN zerbitzuan (El Longar auzoa 1, 1. solairua, Zalla). Ondore hauetarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16.4 artikuluan ezarritakoa aplikatu beharko da.

Eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla.

Eskarerak aurkezteko epea aurtengo abenduaren 31n amaituko da.

### **9.- Nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Laguntza-eskaerak eredu normalizatuan aurkeztuko dira (deialdi honen eranskinean jaso da), eta enpresako edo erakundeko ordezkariak sinatuko ditu.

Ereduak bi zati hauek ditu:

Lehenengoa deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkez daiteke, aurtengo abenduaren 31ra arte; bertan jasoko dira enpresaren datu orokorrak eta diru-laguntza jasotzeko asmoz aurkeztutako kontratuak. Hala, eskaerari erregistro-zenbaki bat emango zaio (erregistro-hurrenkeraren bidez ebatzi dira), eta diru-laguntza ematen duen erakundeak ekitaldirako aurrekontu ekonomiko bat zehaztu ahal izango du.

Ereduan hauek jasoko dira:

**a)** Ereduaren araberako zinpeko adierazpenak, honako hauek adieraziz:

- laguntzen deialdi honetako oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.
- diru-laguntza publikoak itzultzeko edo zehapeneko prozedura batean sartuta ez dagoela.
- ez dagoela zehatuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin eta ez dagoela hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearekin (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) bat.
- jarduera berbererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuen laguntzak eskatu edo jaso dituela.

- bete egiten dela Minimis araua, Europako Batzordearen Minimis araupeko laguntzei buruzko Araudian (2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudia (EE)) ezarritakoarekin bat. Araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2006ko abenduaren 28an, eta horren bidez ordezkatu zen 69/2001 Araudia (EE). Halaber, arauaren ondoko berrikuspenak betetzen dituela adierazten da.

- zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

**b)** Eskatzailearen identifikazioa.

- Eskatzailea pertsona fisikoa bada: Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Pertsona juridikoa bada: Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eta eskatzailea ordezkatzeko ahalmenak, baita enpresa edo erakundearen eratze-eskrituren fotokopia eta horren ondorengo aldaketak, eta dagokion erregistroan inskribatu izanaren egiaztatzea.
- Berezko nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua gehituko da.

**c)** Lan-bizitzaren kopia eguneratua (enpresa edo pertsonarena, dagokionaren arabera).

**d)** Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako kontratuak: Mota eta iraupena.

Bigarrena, jaso beharreko diru-laguntza justifikatzekoa; gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da, laguntzaren xede diren kontratuen indarraldia amaitzen denetik zenbatzen hasita. Agiri bat baino gehiago badira, denak batera aurkeztu behar dira, eta kontratu luzeena hartuko da erreferentzia gisa; gehieneko epea urtebetekoa izango da.

Ereduak honako agiri hauek izan beharko ditu:

**1.** Besteren konturako kontratazioari buruzko dokumentazioa (3.1 atala):

- a)** Kontratutako den pertsonaren NANaren kopia.
- b)** Zinpeko aitortpena, egiaztatu egiten duena pertsona titularrak edo gehiengoaren bazkideek eta enpresa edo erakunde onuradunaren gobernu-organoetako kideek ez dutela odolkidetasun- edo afinitate-harremanik, bigarren mailaraino, eta ez dutela elkarbizitza-unitaterik osatzen diruz lagunduko den kontratazioaren pertsonarekin.
- c)** Diruz lagunduko den lanaren kontratuaren kopia. Lanaren iraupena eta lanaldia jaso behar ditu.
- d)** Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean kontratatutako pertsonaren altaren kopia.

- e) Kontratutako pertsonaren lan-bizitzari buruzko Gizarte Segurantzaren txosten eguneratua (informazio horren helburua da egiaztatzea kontratatutako pertsona langabezian zegoela, eta ea enpresa edo enpresa talde horretan bertan aurretik kontraturik izan duen).
- f) Diruz lagundutako kontratuaren soldaten ordainketen banku-ziurtagiria, laguntzaren xede den aldikoa.
- g) Laguntzaren xede den aldian diruz lagundutako kontratuaren nominen kopiak.
- h) Enpresaren lan-bizitzaren kopia eguneratua, duela gutxikoa.

## 2. Norberaren konturako kontratazioari buruzko dokumentazioa: autonomoak (3.2 atala):

- a) Kontratutako den pertsonaren NANaren kopia.
- b) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eta baja eman izanaren ziurtagiria, Foru Ogasunak egindakoa.
- c) Enpresa edo erakundeak Gizarte Segurantzaren emandako altaren kopia (autonomoen alta).
- d) Azken 12 hilabeteetako autonomoetako ordainagiriak ordaindu izanaren ziurtagiriak.
- e) Enpresaren lan-bizitzaren txosten eguneratua, Gizarte Segurantzak emandakoa (langile berarekin eginiko kontratuak egiaztatzeko).

## 3.- Dokumentazio komuna.

- a) Oinarriak direla-eta kontratazioa kanpoan utzi edo bateraezina delako arrazoirik ez dagoela adierazten duen erantzukizunpenko adierazpena (eskaera-eredu normalizatua).
- b) Hirugarrenen alta-agiria, erakunde eskatzaileak eta banku-erakundeak sinatuta eta zigilatuta (eskaera-eredu normalizatuko laguntza helbideratzeko banku-datuen inprimakia).
- c) Diru-laguntza eskatu duen erakundeak/pertsonak bere zerga-betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Foru Ogasunaren agiria.
- d) Erakundeak/pertsonak bere betebeharrak eguneratuta dituela frogatzen duen Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren agiria.

Eskatzaileak baterako aitopenean jasotako daturen bat faltsutzen badu, dagokion zehapen-araubidea aplikatu ahal izango zaio.

Sortutako enpleguari gutxienez bi urtez eusten bazaio, aldi hori igarotakoan oinarri hauetan jasotako % 20a eskatu ahal izango da, idatzi ofizial baten bidez. Horretarako, langilearen NANaren fotokopia eta haren lan-bizitzaren jatorrizko agiria erantsi beharko dira.

## **10.- Akatsak zuzentzea**

Deialdian, oinarri espezifikoetan eta indarrean dagoen legezko araudian ezarritako betekizun guztiak betetzen ez badira, interesdunari idatziz eskatuko zaio akatsak zuzentzeko. Horretarako gehienez ere hamar eguneko epe luzaezina izango du, eta jakinaraziko zaio okerrak zuzendu ezean bere eskaera ez dela aintzat hartuko.

Eskaera ez da egindakotzat hartuko behar bezala bete arte eta espedientea osorik egon arte (7. eta 8. artikulua).

## **11.- Eskaerak aztertzea eta ebaluatzea**

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk diru-laguntzak emateko prozeduretarako ezarritako Jarraibide Orokorretako 9.-11. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

## **12.- Laguntzaren emakida-ebazpena**

Ebazpenaren jakinarazpena Enkarterri Berri Zerbitzuak SLko Administrazio Kontseiluko buruak sinatuko du. Jakinarazpenean, halaber, Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk diru-laguntzak emateko prozeduretarako ezarritako Jarraibide Orokorretako 9.-11. artikuluetan xedatutakoa adieraziko da.

Sozietatearen webgunean emandako eta ukatutako diru-laguntzen zerrenda bat argitaratuko da, eta bertan berariaz adieraziko da diru-laguntzak zergatik ez diren aintzat hartu edo zergatik ukatu diren, deialdi hauen 15. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Onuradun izateko deialdian ezarritako baldintzei dagokienez, berriz, kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu dela-eta kontuan hartu ez diren eskabideen zerrenda ere ebazpenean jaso beharko da, Diru-laguntzei buruzko Araudiaren (887/2006 ED) 63.3 artikuluari jarraikiz. Ebazpen berri baten bidez, beste diru-laguntza batzuk eman ahal izango dira ezetsitako eskaera horien zerrendako lehentasun-ordenari jarraituz, betiere onuradun batek berariazko uko-egiteagatik libratutako kreditua agortu arte.

Horretarako, berariazko uko-egitetzat hartuko da oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza ez betetzea.

## **13.- Erakunde onuradunen betebeharrak**

**13.1.** Laguntza hauen onuradun diren enpresa, profesional eta erakundeek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, laguntza onartutzat joko da, baldin eta erakunde onuradunek berariaz eta idatziz uko egiten ez badute, diru-laguntza emango dela jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasi eta hamabost eguneko epean.



- b) Laguntza honen xedea betetzea eta kontratazioa egitea, Gizarte Segurantzaren alta emanda, laguntza eskatu den ekitaldiko azken eguna baino lehen.
- c) Zallako Udalak edo edozein kontrol-organo eskudunek (nazionalak zein erkidegokoek) egin ditzaketen egiaztatze-jarduerak eta finantza-kontrolak onartzea. Horretarako, arestian aipatutako jarduerak gauzatzean eskatzen den behar besteko informazioa eman beharko da.
- d) Merkataritza-legeriak zein kasu bakoitzeko onuradunari ezarri ahal zaizkion alorreko legeriak agindu bezala, kontuen liburuak, diligentzien erregistroak eta behar bezala ikuskatutako agiriak edukitzea, bai eta diru-laguntzen oinarri arautzaileek eska ditzaketen kontuen egoera nahiz erregistro zehatzak ere. Hori guztia egiaztatze- eta kontrol-zereginak ondo bete direla bermatzeko.
- e) Enkarterri Berri Zerbitzuak SLri jakinaraztea bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana, laguntzen xede diren jarduerak finantzatzeko. Jakinarazpen hori idatziz egin behar da, ebazpenaren berri izan eta hurrengo hamar egunetan.
- f) Diru-laguntza emateko kontuan izandako alderdi objektibo nahiz subjektiborik aldatu bada, horren berri ematea Enkarterri Berri Zerbitzuak SLri.
- g) Enkarterri Berri Zerbitzuak SLri beharrezko informazio edo dokumentazio osagarria ematea, laguntza-eskaera ulertzeko eta ebaluatzeko.
- h) Jasotako funtsak itzultzea deialdi honek ezartzen duena bete ezean.

### 13.2. Laguntzen onuradun diren erakundeek honako betebeharrak berezi hauek izango dituzte:

- a) Laguntzaren xede den enpleguaren iraupena bermatzea gutxienez kontratuak iraun bitartean, eta Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean etenik gabe izena emanda egotea.
- b) Langilearen lan-egonkortasunari eustea laguntza-eskaeran ezarritako epealdian. Kontratua eteten edo iraungitzen bada, ezingo zaizkio arrazoi hauek enpresari edo erakunde kontratatzaileari egotzi:
  - Enpresari ezin egotz dakizkiokeen arrazoitzat joko dira 49. artikuluko 1.d eta 1.e ataletan jasotakoak, eta Langileen Estatutuaren Legearen testu bategineko 40., 45. (1.a eta 1.b atalak izan ezik), 52. eta 54. artikuluetan jasotakoak (azken bi kasu horietan, betiere langileak kontratuaren iraungipena errekurrizten ez badu edo, bestela, eskumena duen agintaritzak bidezkotzat jotzen badu).
  - Probaldia ez gainditzeagatik langileari baja ematea ere ezingo zaio enpresari egotzi. Horrela, eteteko edo iraungitzeko arrazoiak kontratatutako pertsonari egotzi ahal bazaizkio edo probaldia ez gainditzeagatik gertatzen badira, pertsona ordeztu egin beharko da, 2. atalean ezarritakoari erantzuten dion langile berri baten bidez. Kontratazio hori epe jakin baterako egin beharko da; zehazki, epe horrek, diru-laguntza hasi zen kontratazio-aldiari gehituta, diru-laguntza zehaztu zuen iraupena izan beharko du, 5. atalean ezarritakoarekin bat. Kasu horietan, diru-laguntzak ez

du hasieran emandako diru-laguntzaren zenbatekoa gaindituko, deialdi honetako 5. atalean ezarritakoari jarraikiz. Ordezkapena egiteko gehieneko epea 21 egun naturalekoa izango da. Kontratutako langilea epe horretan ordeztan ez bada, enpresak diru-laguntzaren zati proportzionala itzuli beharko du, hain zuzen ere bete gabe geratu den kontratu-epari dagokiona. Kontratua iraungitzeko arrazoiak enpresari egotzi ahal bazaizkio, enpresak jasotako diru-laguntza osoa itzuli beharko du. 13.3. Enpresak sortzen direnean, gutxienez 12 hilabetez egon behar dute alta emanda (sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasita), baldin eta arrazoi objektiboak eta justifikatuak direla medio aurreikusitakoa baino lehen ixten ez badira.

#### **14.- Ikuskapena**

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk diruz lagundutako jardueri buruz egoki irizitako ikuskapen eta egiaztapenak egin ditzake, eta enpresa eta erakunde onuradunek eskatutako informazio osagarria eman beharko dute.

#### **15.- Diru-laguntza ordaintzea**

Diru-laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, dokumentazioa aurkeztu ondoren. Dokumentazio hori emandako diru-laguntza jasotzea eragin zuen kontratuaren iraupena amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da; kontratu bat baino gehiago izanez gero, guztiak batera aurkeztuko dira, eta erreferentzia gisa luzeena hartuko da (gehieneko epea urtebetekoa izango da).

Eskatzaileak baterako adierazpenean jasotako datuen bat faltsutzen badu, dagokion zehapen-erregimena aplikatu ahal izango zaio.

#### **16.- Diru-laguntzak argitaratzea**

Aurkezpen-epea amaituta eta behin eskaera guztiak ebatzita, eman diren diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da sozietatearen webgunean, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) bere 18. artikuluan eta lege hori onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak bere 30. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta deialdi honen 11. artikuluan zehaztutakoa betez.

#### **17.- Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea**

Diru-laguntza ematean kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok emakida-ebazpena aldatuko du, betiere arau honetan onuradun izateko ezarritako gutxienezko baldintzak betetzen badira. Horretarako, Enkarterri Berri Zerbitzuak SLko Administrazio Kontseiluak dagokion aldaketa-ebazpena egingo du, eta horrek berriro ere doituko ditu emandako diru-laguntzen zenbatekoak.

### **18.- Diru-laguntzak itzultzea**

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, diru-laguntzak ordaindu zirenez geroztik sortutako legezko interesekin batera, erakunde onuradunek deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte. Baldintzok esleipen-ebazpenean eta aplika daitezkeen bestelako arauetan daude jasota. Hori guztia arau-hauste horren ondorioz sor daitezkeen bestelako ekintzetan eragin gabe.

Honako hauek izango dira itzultzeko arrazoiak:

- Diru-laguntza ezarritako baldintzak bete gabe lortzea.
- Diru-laguntzaren helburua ez betetzea.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
- Diru-laguntza ematean onuradunari/onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontrol-jarduerei uko egitea edo horiek oztopatzea.
- Diru-laguntza gauzatutako jardueraren kostua baino handiagoa izatea. Halakoetan diru-laguntzaren gehiegizko zatia itzuliko da.

Halaber, Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk diru-laguntzak emateko prozeduretarako ezarritako Jarraibide Orokorretan, diru-laguntzak itzultzeari buruzko ataletan, xedatutakoa aplikatuko da.

### **19.- Ordezko araubidea**

Deialdi honetan aurreikusi ez diren kasuetan, Diru-laguntzen Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) eta hura garatzen duen araudia aplikatuko dira, baita Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk diru-laguntzak emateko prozeduretarako ezarritako Jarraibide Orokorrek ere.

### **20.- Datu pertsonalak babestea**

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk jakinarazten du, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoarekin (abenduaren 13ko 15/1999 Legea) bat eginez, eskatzaileen datu pertsonalek tratamendu automatizatu izan dezaketela eta Zallako Udaleko informazio-sistemetan eta haren erakunde autonomoetan bilduko direla. Datu horiek udal-kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan (abenduaren 13ko 15/1999 Legea) aurreikusitakoa gertatzen denean. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta horiei aurka egiteko eskubidea erabil dezakete Herritarrentzako Arreta Bulegoen bidez. Laguntzen programan parte hartzean, jakinarazitako datu pertsonalak administrazio publikoei edo Zallako Udalarekin lankidetzan ari diren erakundeei utz dakizkieke, eta zabalkunde orokorreko bitartekoetan ere argitara daitezke.

## **21.- Baliabide ekonomikoak**

Diru-laguntza hau osatzen duten funtsek izaera mugatua dute eta ekitaldi bakoitzean sozietateak xede horretarako eskuragarri dituen baliabide ekonomikoen araberakoak izango dira.

## **22.- Azken xedapena**

1. Diru-laguntzen deialdia Enkarterri Berri Zerbitzuak SLko Administrazio Kontseiluak deialdia onetsi eta sozietatearen webgunean argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.
2. Enpresa edo erakunde interesdunek eskaera aurkezteak esan nahi du oinarriak erabat onartzen dituztela. Laguntza horiek osatzen dituzten funtsak, helburu honetarako, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren erabilgarritasunera mugatuta daude.

Zallan, 2017ko uztailaren 28an.— Enkarterri Berri Zerbitzuak SLko presidentea,

**Javier Portillo Berasaluce**

## ZALLA SUSTATU EKIMENAREN LABURPEN-ORRIA

### ➤ **Besterentzako kontratueterako laguntza**

Urtebeteko edo gehiagoko kontratuak:

- Langabeak 3.000
- Langabeak + 45 urtetik gorakoak (urtebete langabezian) 3.500
- Gazteak, -30 urte 3.500
- Gazteak, -30 urte (unib. edo LHko goi-maila) 4.000

Beste baldintza batzuk:

- + % 20 mugagabea (gutxienez 2 urtez mantendu behar da)
- + % 20, Zallako enpresa izanez gero
- Urtebete baino gutxiagokoa bada, zati proportzionala kenduko da (6 hilabetetik gora, betiere)
- Arduraldi osoa ez bada, zati proportzionala kenduko da (betiere % 50 baino gehiago).
- Kontratuak pilatu daitezke:
  - enpresa bera
  - 6 hilabetetik gora
  - ordutik urtebete igaro ez bada

GEHIENEZ ERE 5.600, KONTRATU MUGAGABEA BADA ETA ENPRESA ZALLAKOA BADA. ENPRESA BAKOITZAK GEHIENEZ ERE 6 KONTRATU AURKEZ DITZAKE.

### ➤ **Autonomoak:**

Lehen 12 hiletako kuoten ordainketa:

- Gutxieneko kuota
- Legeak ezartzen dituen pizgarriak onartzeko betebeharra

GUZTIRA: 1.902,18

*Autonomoen Lege berria jada izapidetzen ari dira, eta bertan aurreikusten da autonomo berriei ematen zaien hobari hori sei hilabetetik urtebetetera luzatzea.*